

# Noaqua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko apirilaren 21a V.urtea

Usurbil, 88. zenbakia



Erleen lanaren  
fruitua: ezitia





Kale nagusia 10, Behea  
943 366818 / 362141  
ARANTXA@es.ceac.com


## INFORMATIKA IKASTAROAK (MAIATZA - EKAINA)

WINDOWS	16 ORDU
WORD	18 ORDU
EXCELL	18 ORDU
ACCESS	20 ORDU
INTERNET	16 ORDU

**Ikastaroetatik kanpo klaseak ematen dira  
Apuntatzeko epea: Apirilak 27**

## SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48  
FAXA: 943 37 24 67

## GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA,  
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA  
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.  
KALE NAGUSIAN 4.6.8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2.4.6.8

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.  
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.  
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA  
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU  
PROPIOAREKIN. KOTXEA GARBITZEKO LEKUAREKIN


SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIALTUAK  
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

**MENDIGAIN S.M.** ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21  
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

### GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehengo solairua



Bigarrengo solairua

## Egin zaitez Noaua!ko bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo  
eta erosketak merkeago egin nahi  
badituzu hona hemen zure aukera

**%10eko  
beherapena**

Aldatz kioldenda  
Mahuka jantxidenda  
Pauma Haur jantziak  
Truke jantxidenda  
Usurbil optika denda  
Intza ileapaindegia

**2.500 pezetatik  
gorako otordua  
eginez gero  
%10eko  
deskontua**

Antxeta jatetxea  
Patri jatetxea  
Zumeta jatetxea



## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Ainhoa**, apirilaren 23an zure urtebetetze eguna baita. 12 urte beteko dituzunez muxu haundi bat etxeko guztien partez, bereziki zure lehengusu Andoni eta Jon anaiaren partez.



Urteaskoan **Borja!** Apirilaren 24an 11 urte beteko dituzu. Zorionak eta jator-jator segi. Etxekoan partez.



Zorionak **Elena!** Pasa den apirilaren 13an zuretzat egun on bat izan zelakoan, urteaskoan etxekoan partez. Muxu asko.



Zuen bodan oso ondo pasa genuen. Hala ere berriz ere zorionak eman nahi dizkizuegu familiakook. Urte askoan zoriontsu izan zaitezela **Elixabet eta Joseba**.



Osaba ilobei zorionak eman nahi dizkizuegu. **Patxi** apirilaren 19an 46 urte bete zituen. La Santéko zure lagun guztiakin egun ona pasa zenuelakoan gaude. **Maialenek**, berriz, apirilaren 15ean bete zituen 22 urte. Muxu haundi bat biezako etxekoan partetik.



Kaixo **Urko**, zer moduz ospatu zenuen zure zortzigarren urtebetetzea? Portuko familiaren partez zorionak, muxu haundi bat eta... aupa erreala!



Zorionak **Urtzi!** Jorralaren 28an 3 urte beteko dituzu eta zure egunean pozik eta alai pasa dezazula opa dizugu etxekook.



Langile! Hire urtebetetze egunean ez duk lanik egingo ezta? 26 urte bizitzan behin betetzen dituk e! Aurreztuta daukaten diru guztia atera beharko duk **Gorka** gu gonbidatzeko. Hire lagunak!



Zorionak **Mari Jose eta Nahia**. Ondo pasa zuen eguna eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Aupa **Eider!** Hi ere iritsi haiz 15 urtera. Apirilaren 15ean jan genituen pastak behintzat gozo askoak zeuden. Zorionak eta muxu haundi bat ekipokoan partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: apirilaren 21a

Ekartzeko azken eguna: apirilaren 14a

## Jaiotzak

**Eneko Iribar Zumeta**

(2000-03-25)

Atxegalde

**Maria Martín Corral**

(2000-04-02)

Olarriondo

**Enara Arruti Portularume**

(2000-04-09)

Galtzaragaina

**Aitor Aranguren Errasti**

(2000-04-11)

Aginaga

## Udaltzaingoa ordutegia

**Astegunetan**

6.00/22.00

**Asteburu eta jaiegunetan**

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

## XABIER EDARITEGIA

Etor zaitez, eta dasta itzazu Goierriko produktuak

- × Idiazabal gazta
- × Beasaingo odolkiak...



## HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17



Kale Nagusia, 9 USURBIL  
Tlf. 943 37 33 48  
943 37 09 13



**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaidea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.topagunea.com/noaua/>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieita, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe eta Agurtzane Solaberrieta.

**Maketazioa eta diseinua**

Olatz Goenaga eta Ander Perez

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:** 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

# Zer irizten?



**D**agoeneko ohartuko zineten Gazte Topagunea gainean dugula. Apirilaren 20, 21 eta 22an Kanbon Euskal gazte herria ikusi, amestu eta... asmatu nahi dugu Independentziaz. Aurten go topaguneak gainera izaera berezia izango du bi arrazoirengatik: batetik Jarrai eta Gazte-riakek antolatzen dugulako eta gainera horrelako eskaintza bat iparraldean egiten den lehen aldian delako. Bestetik, Topagune hau guztiz lotuta dago bertan aurkeztuko den Euskal Herriko Gazte Erakundearekin. Guztiz lotuta erabaki hori hartzera eraman gintuzten arrazoiak eta guztiz lotuta erakunde horrek, Euskal gazte eta Gazte Mugimenduari luzatu nahi dion proiektu eta oinarriko mezuari.

Topagune hau historikoa dugu, Euskal Herriko askapen borrokan, oraina eta geroa markatuko duelako. Euskal Herriko Gazte Erakundearen sorrera izango da. Hegoaldea eta Iparraldea ari dira piskanaka-piskanaka batzen!

Topaguneari begira, ekitaldi ugari izango ditugu bertan. Ekitaldien artean, politikoa izango da Topaguneko unerik nagusienetakoa, ekitaldi zentrala. Osagai ezberdinez osaturiko ikuskitzuna izango da. Euskal Herriko

## Usurbilgo Jarrai

Gazte Erakundearen sorrera ekitaldia. Bertan, ERAKUNDE BERRIAREN LOGOA eta IZENA ezagutzera emango dira lehen aldiz.

Gazte sorkuntzaren inguruan gune desberdinak egongo dira: kultur karpa bat (pop-a, folk-a, ipuin kontalariak, mahai inguruan, hitzaldiak...), Gazte Azoka erraldoia (euskal produktuak, kultur aldizkariak...) eta baita laburmetraien maratona (euskal produkzioa) ere.

Ekitaldi gehiago ere izango dira:

- Animazioa: titiriteroak, hankapaloak, fanfarreak, malabareak, su ikuskizunak, jokoak, txiste kontalariak, bertsolariak...

- Kontzertuak: Mikel Urdangarin, Anje Duhalde, Kafha, Haurtzarrak, Inadaptats, S.A, Fermin Muguruza, Dub Manifest, Hats, Etsaiak, Su Ta Gar, Barrikada, RIP eta Betagarri.

- Sagardotegi herrikoa.

Uste dugu nahikoa arrazoi badela zuek denok Kanbora joatera anima zaitetzten. Beraz, apirilaren 20, 21 eta 22an han ikusiko garelakoan gaude.

Anima zaitetz!



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria


Euskal presoak



Euskal Herrira!

**Azala:**  
**GOROSTITXO EZTIOLAKO**  
**EZTIA**





## Vicente Lerones Mayordomo

**Palentzian jaio bazen ere, duela hogeita hamabost urte etorri zen Usurbilera. Hemen integratzea erraza izan zen berarentzako eta esan digunez, ez du bere herrira itzultzeko asmorik.**



### Nongoa zara?

Palentzian dagoen herri txiki batekoa naiz, Villamorcokoa.

### Noiz etorri zinen hona?

1964. urtean etorri nintzen. Urte horietan hango lurretan traktoreak sartzen hasi ziren, han ez zegoen lanik eta lan bila etorri ginen. Lehenengo anaia bat etorri zen Donostira soldaduska egitera eta ondoren familia osoa etorri ginen.

### Zer dela eta etorri zineten Usurbilera?

Nire anaia Gasparrek Michelinen lan egiten zuen eta Usurbilen pisu bat erosi zuen, ondoren denak etorri ginen. Urte bete egon nintzen Lasarten bizitzen eta 65ean guraso eta anai-arreba guztiak etorri ginen Usurbilera. Iritsi eta lanean hasi nintzen Ingemarren eta ordutik bertan aritu naiz lanean.

### Erraza izan al zen hemen integratzea?

Ia ez genuen arazorik eduki. Euskal Herria betidanik gustatu izan zait eta nahiko gustora egon naiz hasieratik.

### Hizkuntza dela eta, zailtasunik izan al duzu?

Hizkuntzarekin nahitaez beti daude zailtasunik, hori da hain zuzen ere hona etortzerakoan aurkitu genuen zailtasunik handiena, baina onartu beharra dagoen zerbait da. Nik badakit Euskal Herrian gaudela eta logikoena dela euskaraz hitz egitea. Guri zaila egin zaigu eta lagun batzuek esaten didate ez baldin badakit nahi ez dudalako dela, baina ahal dudanetan behintzat, dakiten

apurra praktikan jartzen saiatzen naiz.

Euskaltegian ere apuntatu nintzen duela urte batzuk, baina lan arazoengatik ezin izan nuen joan.

### Asko aldatu al zen zure bizitza hona etorri zinenean?

Bizitza beti aldatzen zaizu, baina nire kasuan aldaketa ez zen hain handia izan familia osoa etorri ginelako. Ez zen izan dena han utzi eta etortzea, errazagoa izan zen.

### Ohiturak asko aldatzen al dira?

Bai, noski aldatzen direla, baina nahiko gazte etortzen zarenez, hemengo ohiturak hartzea errazagoa da.

### Zertan aritzen zara hemen?

Ingemarren lana egiteaz gain, futbol eta eskubaloiko zuzendaritza batzordeetan ibili izan naiz eta zortzi edo bederatzi urtez eskubaloiko taldeko delegatua izan nintzen. Zortzi urte ere ibiltzen naiz kanpamenduak eta horrelakoak antolatzen.

### Zure jaioterriaren falta nabaritu al duzu?

Ez. Nire lurra maite dut, han jaio bainaiz, baina han ez daukat inor, jendea inguruko herri handienera, Carrion-era, joan da orain eta gainera familia hemen dudanez...

### Zure herrira bueltatzeko asmorik ba al duzu?

Ez. Niretzako nire herrira Usurbil da duela hogeita hamabost urtetik.

Olatz Lasagabaster

**PATRI**  
**JATETXEA**  
Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

**ORBELDI**

**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



**ESTRELLA**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Zubiaurrena, 10  
Tel. 943 37 18 07 - Fax.: 943 37 63 41



# TXOKOALDE

## Akerra gaztetxearen inguruan...

Imanol Goenaga



**O**raingoan Akerra gazte-  
txearen kontuekin natorki-  
zue. Izan ere mugimendua ego  
badago gure gaztetxe hone-  
tan.

Batetik, pasa den apirilaren  
7an Akerra gaztetxean "TONO-  
PUNK", "LOS ESBIRROS" ETA  
"BLETZ" taldeek kontzertua  
eskaini zuten. Kontzertua zegoe-  
naren berria asko zabaldu ez  
zen arren, jendetza ugari bildu  
zen Akerrara. Beraz, gure festa  
goizaldera arte luzatu zen.

Eta Akerra gaztetxeaz ari  
garenez, esan behar bertako  
gazteok U.G.A-k antolatutako  
futbito txapelketan parte har-  
tzen ari garela. Lehenengo nor-

gehiagoka apiri-  
laren 8an izan  
zen eta 16-1eko  
emaitzarekin  
amaitu genuen,  
guk galdu  
genuelarik. Kon-  
tzertu ondoren-  
go ajeak naba-  
rian geratu ziren,  
bai horixe!

Baina ajeak  
aje, hurrengo  
kontzertua  
buruan dugu  
dagoeneko.  
Beraz, badakizue apirilaren  
amaieran ez bada, maiatzaren  
lehen egunetan kontzertu bat



izango dugu Akerran ziurrenik.  
Espro dugu Usurbilgo Gazte  
Asanbladak hau kontuan izatea  
paridu egunak zehazterakoan...

# KALEBERRI

## Norberak berea

**E**ntzun dut 80. hamarkada  
aldera gaztelania ez zeki-  
ten euskaldunek, apur bat baz-  
tertuta ikusten zutela beren  
burua. Baina hamarkada horren  
hasieran ETB sortu zenean  
(1982an oker ez banago)  
entzun omen ziren honelakoak  
ere: lehen gaztelania ez jakite-  
az gain, orain euskaraz ere ez  
dakigu!

Pixkat pentsatzen jarrita, ez du  
erraza izan behar, batez ere  
ikasi eta asko atera gabeko hel-  
duentzat, bapatean euskara  
batuan hizketan ari diren horre-  
tara ohitzea. Baina guk eta  
ingurukoek ez genuke arazorik  
eduki behar, gure hizkera,  
gipuzkera, eta euskara batua  
ez direlako asko urruntzen. Zer  
esango luke orduan, bere hizke-  
ra eta euskara batua urrun

samar dituen batek? bizkaitar  
edo zuberotar batek esatera-  
ko?

Badira hizkuntzak, dialektoez  
gain aldaera estandarra ere  
badutenak. Gure kasuan, dia-  
lektoak euskalkiak dira eta  
aldaera estandarra, berriz, eus-  
kara batua. Esan nahi dut hiz-  
kuntza estandarra ere baduen  
hizkuntza hitz egiten duen per-  
tsona batek ez lukeela arazorik  
eduki behar edo errazagoa  
gertatu beharko litzaiokeela,  
behintzat, hizkuntza bereko dia-  
lekto bat ulertzeko.

Makina bat izango zarete  
pentsatzen duzuenok: eta  
honek nora iritsi nahi du honekin  
guztiarekin? Ba...bada nor  
"bere euskara" ez dela ulertzen,  
eta are gehiago, beren hizkera

ez dela euskara uste eta esaten  
ibiltzen direnak eta horren aitzai-  
kian euskaraz hitz egin ordez  
gaztelaniaz mintzo dutenak.  
Horregatik, nire gogoia beren  
uste ustel hori daukatenei iritziz  
aldatzen laguntzea da, edo  
animatzea gutxienez. Hitz egin  
dezala norberak bere duen hiz-  
keran; edo tokian tokiko hizkera  
hitz egiteko erretasuna eta zor-  
tea badu, hitz egin dezala,  
baina ez eman gaztelaniaz hitz  
egitera pasatzeko jausia, arren.

Azkenean, ulertze kontu hori  
hiztunen kontua dela iruditzen  
baitzait, eta ez euskalkien, hiz-  
keraren kontua. Ulertu-nahia,  
adierazi-nahia, bakoitzak bere  
aldetik jartzen duen boronda-  
tea, motibazioa etabar baitira  
azken finean elkar ulertzeko  
behar diren osagarriak.

Eneko Harreguy





# KALEZAR

## Putzuz putzu

**E**zaguna da guztiontzat, azkenaldian batez ere, desagertzeaz dagoen igel espezie berezi baten kontua. Igel mota hori Usurbil-Donostia aldeko mugan garatu omen da gaur arte, Ibaeta, Igara, ...zonalde horretan. Oraingoan gugandik pixka bat gertuxeago jarri nahi dute (Usurbildartu nahiko dute, bai baitaukagu igeletik pixka bat!). Horretarako Urtetako lakua aukeratu dute.

Nor ez da joan inguru hartara? Batzuk "laku" hitzak txundituta (ez baititugu asko) hura zer den jakin nahian. Besteak, gure herriko txirrikitu izkutuenak

bilatu asmoz bertara iritsi direnak. Eta beste gutxi batzuk (edo asko, ez dakit) sgarrotegien usainean, ingurutik igaroz eta kasualitatez putzuaren berri dakitenak.

Gazteenok beti eduki dugu bertan bainu bat hartzeko tentazioa, baina ur geldia dela, zomorroak daudela, ...

Bada orain, putzua hustu egin dute, azpialdean zirrikituak itxi egin dituzte euri urak filtrazioz itxi egin dituzte eta betetzean, gure igeltxo hauentzat bizileku berri bat



prestatzekotan dira. A zer iskanbila hemendik aurrera igel festa horrekin!

Andoni Udabe



# ATXEGALDE

## Auzotarren onerako

**Z**ein pozik jartzen garen Udaberria iristean, negua atzean utzi dugula ikustean.


Nik uste dut gehienok poz-pozik jartzen garela gure mendi, zelai, zuhaitz eta inguru guztiaren edertasuna ikustean. Gainera, eguna luzeagoa eta argiagoa dugu paseo on batzuk emateko.

Horri buruz idatzi nahi nuke zerbait. Gure auzoa nahiko gaztea da, baina adin guztietako jendea bizi gara. Gehienbat gaztea, noski, baina baita tartekoak eta adinekoak ere. Adinekoei buruz zerbait adiera-

zi nahiko nuke: beren paseoak egiterakoan (batez ere behealdean bizi direnak) Atxegaldeko aldapatxoa igo ondoren, banku edo eserleku bat edo besteren beharra nabaritzen dute, Karobi aldetik herri alde-rako bidean. Batetik adina, eta bestetik arazoren bat eduki dezaketela kontuan hartuz, nahiko luze egiten da bidea anbulategira, azokara edo kaxkora iristeko. Beti ere, deskantsu aldi bat egin ondoren errazago

egiten baita hurrengo ibilbidea. Hemendik urte batzura gu denok eskertu egingo dugu, bada...gu ere adinean aurrera baikoa. Joan gaitezen gauza horiek pixkanaka lortzen auzotar guztion onerako.

Jone Eizmendi





# SANTUENEA

## Udalari eskaera bat

**T**artetxo honetan Udalari zera eskatu nahi nioke: Santuenetik Usurbilera pertsona edadetuentzat zerbitzu berezia jartzea.

Aipatu berri dudan eskaera hau, aspalditik planteatuta



zegoela uste dut. Badakit usteak erdi ustelak izaten direla, baina errezelua dut planteamendu hau hauteskunde kanpaina batean Santuenean aipatu egin zela. Jakin badakigu hauteskunde kanpainan zehar gauza asko esan eta prometituta egiten direla. Hala ere berriro diot, errezelua baino ez dela, gaizki ulertuak egon ez daitezten.

Udalaren aspaldiko planteamendu bat izan edo ez izan, gustatuko litzaidake nere eskerari erreparatzea.

Santueneatik Usurbilerako bidea maiz gogorra izaten da, batez ere eguraldi txarra dagoenean edota bero haun-

Agurtzane Solaberrieta



dia egiten duenean. Gainera kontutan izandik Ingemarko bidean aterperik ez dagoela. Gu oraindik sasoiean gaude, baina pertsona edadetuentzat zerbitzu berezi bat jartzea ez letorke batere gaizki. Beti izaten da zerbait Usurbilera igotzeko; sendagilera bisita, erosketak, udaletxera joan beharra,...

Horregaitik, bai goizean eta bai arratsaldean joan-etorria egingo duen mikrobusa edota auto bat jartzea partsona edadetuentzat eskatzen diot Udaletxeari. Agian, planteamendua ez da dirudien hain erraza, baina behintzat nere eskaera kontutan hartzea eta aztertzea gustatuko litzaidake.

# URDAIAGA

## Urak badaki bere bidea egiten

**O**raingo honetan ez noa eguraldiaz hitz egitera, baina ezin esan eguraldiarekin zerikusirik ez duenik, **izan ere urari buruz hitz egin behar baitut.**

Jakina da Urdaiaga auzo honetan urtegi edo depositu bat dagoela jolas parkearen azpian, hain zuzen ere. Bertan metatzen dira Andatzan biltzen diren urak, ondoren etxeetan banatzeko. Urtegiak maila gorena harrapatzen duenean, soberako urak kanpora bueltatzen dira berriz ere. Ur hauek ubide batetik behera joaten dira parkearen azpialdetik

barrena. Gero, beheko mahaien inguruan dagoen zulo baten barnean sartzen dira, eta zulo honetan sartu ondoren, non irteten dira?

Ba, dirudienek urek haitzen artean pasaleku bat egina dute. Nire aitona-amonei entzuna nienaren arabera, Txokoalde auzoko Torre jauregian dagoen jardinean amabirjina bat dago (oraindik ere han egongo da, noski) eta honek zingira edo putzutxo bat du bere aurrean. Ba, haiek esaten zutenek, deposituak gainezka egitean eta zulo horretatik barrena ur dexente sartzen

Joseba Zubeldia



zenez, hau hazi egiten zen, hemen izango ote du irteera?

Zuloari dagokionez esan, bere inguruan babeserako hesi bat jarrita dagoela eta, lehen egurrezkoa baziren ere, orain metalezko berriak jarri dituztela. Izan ere, gehienak hautsiak baitzeuden.



# AGINAGA

## Orain dela hogeita hamar urte...

**O**rain dela hogeita hamar edo berrogei urte eza-gutu genituen Erribera eta inguruko maldak asko aldatu dira Aginagan; ezagutu ez dituenak Noauak banatutako argazkiak begiratu besterik ez du. Orduan nonahi ikusten ziren sagastiak, gaur egun, berriz, ia guztiz desagerturik daude, bakan batzuk gelditzen direlarik. Gorosti baserrikoak kasu.

Lehen baserri guztiek egiten zuten sagardoa, beren sagardoa joaz. Badirudi berriz ere, batzuk behintzat, landaketa berriak egitera animatu direla

eta horrela, Goikoetxeatarrek eta Errastitarrek beren lur batzuetan sagarrondoak aldatu dituzte.

Gaia aldatuz, gero eta jende ugariago ikusten da, batez ere emakumeak, espaloian zehar oinez Txokoaldera bidean. Beren eguneroko ibilbidea egiten dute trenbide zaharreraino, izan ere Udalak galipota bota ezkeroztik oso txukun baitago.

Baina Ehiza ondoan, garai batean harrobia zenaren parean, ur-negarra azaltzen da espaloi gainean eta denborarekin goroldioa sortzen da, horrek irristatu eta eroritzeko

Manuel Begiristain



arriskua dakarrelarik. Gauzak horrela, ur horiek bideratzea komeniko litzateke eta baita espaloia lehortzea ere, ezer gertatu baino lehen.

Inguru honetan beste puntu arriskutsu bat ere badago, ez oinezkoentzako, kotxeentzako baizik: Ehizako kurbaren egoera. Galipota zuloz beteta dago eta, nahiz eta tarteka palaka batzuekin konpondu, egun gutxitara berriz agertzen dira eta autoak gauza arraroak egiten ditu. Udalak Diputazioari kurba horren egoera tamalgariaren berri eman beharko lioke.

# ZUBIETA

## Gure mendiak

**B**adirudi betidanik gure kulturaren zati garrantzitsua izan diren mendiak erdi ahaztuak ditugula azkenaldi honetan. Jadanik gutako asko ez gara lehen bezala joaten bertara hango paisaiak ikusi eta darion bizitasuna sentitzera. Baten batek ere erabat ahaztuak izango ditu jada.

Mendien egoeraz gain, bertako zuhaitzez ere arduratzen hasi beharko genuke. Azken urteetan gure mendietan zuhaitzak landatu dira, baina gehiengoa pinua izanez errentabilitatea edo ateratzeko asmoz.

Mendi publikoetan, bertakok ditugun zuhaitzen landatzeaz arduratzen hasi beharko genuke, hauen artean "Agina" ezin dugularik ahaztu. Euskal kondairetan nabarmen izan diren zuhaitz hauek gutxi ikusten dira gure mendietan, eta beraz berreskuratzen saiatu behar genuke, gal ez daitezten. Denon esku dago.

Olatz de Migel



Beraz, badakizue, jai egunak bertantxe ditugunez, aukera ona izan daiteke gure inguruak bisitatu eta hauen egoera ikusteko. Ez da urrunera joan behar paraje ederrekin gozatzeko. Anima zaitzete!





## Udalak Txokoaldeko guardetxea beretzat nahi du



**T**xokoaldetik Andatzara abiatzerakoan bide bazterrean dago guardetxea. Izen hori badu ere, aspaldi honetan ez da guardarik bizi etxe horretan, eta honen egoera gero eta txarragoa da. Foru Aldundiak eraikuntza hau botatzeko asmoa azaldu dio udalari.

Hala ere Foru Aldundia udalarekin beste irtenbide batzuk aurkitzeko prest dago. Etorkizunean beste erabilera bat eman ahal izateko udalak etxe hau beregain hartzeko proposamena egin dio. Arriskuak kentzeko teilatua, barruko zutabeak eta beste hainbat gauza konpondu nahi ditu Udalak eta behin behingo erabilera eman

Aurrera begira, ordea, zer erabilpen emango dioten oraindik ez du zehaztu udalak. Alkatearen esanetan aukera hau aztertu gabe daukate. *"Horretarako denbora behar dugu, baliabide ekonomikoak aztertu, ekonomikoki bideragarri izango den erabilpen bat eman etab."*

Orain Foru Aldundiak du hitza. Udalak bere asmoaren berri eman dio Foru Aldundiari eta hauek zer erantzungo zain daude. Baietzkoa emango balute konponketak egin eta behin behingo erabilpen bat eman nahi diote eraikuntza egoera onean mantendu ahal izateko.

## Labur-labur

### 178 langabetu martxoan

INEM-ek martxoaren 31ri dagokion langabeziaren xehetasunak eman berri ditu. Usurbilgo 178 langabetu daude INEM-en izena emanda, 62 gizon eta 116 emakume. Adinari dagokionez, 25 eta 29 urte bitartekoak dira gehienak, 44 hain zuzen ere. Iharduera ekonomikoan kontutan hartuta berriz, industria langileen eskaera kopurua haundia da, 40 langile baitaude arlo horretan lan egiteko prest.

### Lanpostu berriak udalean

Apirilari agur esan eta maiatzari ongi-etorria emateko ordua izango da laister. Udara usaina gero eta gertuago dugunean udalak, urtero bezala, lau hilabetez lan egiteko lau lanpostu atera ditu. Hiru peoi eta elektrikari laguntzaile bat behar dituzte. Eskerak aurkezteko epea maiatzaren 3an amaituko da eta udal bulegoetan eskura ditzazkezte oinarriak eta eskaerak. Bestalde, behin behineko kontratuarekin kale garbitzaile bat ere behar dute. Maiatza 5ean amaituko da eskaerak aurkezteko epea.

# Jar ezazu hemen zure publizitatea

Telf. 943 36 03 21



# H

## erorrek esan



**Jose Luis Pagola**

Atxegalde

**P**oteoaren ohitura galtzen ari dela uste dut jendea zahartzen ari den heinean. Ikasketegatik edo lanagatik gazte jendea astebukaeretan bakarrik ibiltzen da normalean.



**Olatz Lasagabaster**

Etxealdia

**H**emen "poteoaren Kultura" deritzona dago eta horrek eragina dauka. Tabernetan denbora asko pasatzen dugu, jende guztia bertan baitago. Gainera, tabernetan erosketetan baino diru gehiago gastatzen dugu.



**Jokin Errasti**

Aginaga

**N**ik egun guztia tabernan pasatzen dut. Bertan lan egiten dut eta gainera gustora egoten naiz tabernan. Nik uste dut asteburuetakoko plan nagusia horixe dela, afaldu eta parranda egin. Hemengo kultura hori baita, ondo jan eta ondo edan.



**Aroa Alkorta**

Kaleberri

**A**steburueta tabernan egoten gara batez ere. Gainera,

tabernak itxita daudenean zer egin ez dakigula geratzen gara. Zereginik ez dugunean tabernara joaten gara eta diru asko gastatzen dugu bertan. Askotan ez dugu taberna ez den beste aukerarik ikusten, iniziatiba falta ere badago.



**Jose Luis Elexpe**

Kaleberri

**D**enbora gehiegi pasatzen dugu tabernetan. Hemen go ohitura bat da

tabernetan ibiltzea. Jendea tabernetara mugatzen da, beste aukera batzuk daudela kontuan izan gabe. Baina denborarekin hori aldatu egingo da. Frantziar bezala, tabernak gero eta goizago isten hasiko dira eta etxeetan egin beharko ditugu festak.



**Karmele Muxika**

Galtzaragaina

Astebukaeretan bai, baina bestela astean zehar ez da jende asko ibiltzen. Nahiz eta astebukaeretan poteoa mantentzen den, astean zehar asko jeitsi da. Hala ere euskaldunoi ondo jan eta edaten dugula esaten digute, eta hori egia da.



**Miren Aierbe**

Atxegalde

**N**ik uste dut ez dela hainbestera. Egia da gero eta gehiago gastatzen dugula gure denbora librean, baina ez bakarrik tabernetan. Beste gauza asko ere egiten ditugu; zinera joan, orain modan dauden merkatal zentruetara, ... hauetan ere diru mordoia uzten dugu.



**Imanol Mujika**

Atxegalde

**N**ik, behintzat, kalean egoten naizen denbora gehiena tabernan pasatzen dut. Gainera, Usurbilen ez dago aukera handirik tabernaz gain. Gainera erosona horixe da; beste aukeretan pentsatu gabe tabernara joatea.

*Haur jantziak*



**Pauma**

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



**MAHUKA**

*Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

**RAMON BARCENILLA**

*. Pikor- pintura eta gotele lanak  
. Papereztatze-lanak  
. Pintura-lanak oro har*

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL  
MOBILA: 629 46 09 66



## Elikagai gisa eta sendagintzan erabiltzen da eztia

**A**pirilaren 29an Erleen Eguna ospatuko da Usurbilen. Iaz *Noaua!* eman genion bere tartetxoak. Erlea izan genuen mintzagai nagusia eta Koldo Urrutiarekin aritu ginen solasean. Aurten, aldiz, eztiak hitz egitea erabaki dugu. Hau da, eztiak ekartzen denetik ontziratutako prozesuaz hain zuzen ere. Horretarako, Gorostitxo Eztiola Elkarteak kidea den Julian Bengoetxearengana jo dugu. Berak kontatu dizkigu eztiaren nondik norakoak.

Bartolo Ayerbek idatzitako bertso batek honela dio:

*" Erleen izaera nola dan  
nai nuke adierazi,  
gaztetandikan zartzaroraiño  
egin detana ikusi.  
Erleengandik al dan guztian  
egiten degu igesi,  
beraiengana nola arrimatu  
ondo pentsatu lenbizi,  
pazientzia bear da baiña  
denak dituzte merezi."*

Halaxe da, bai. Baina erleek egiten duten lana ez da txantxetako. Erle bakoitza berrogeiren bat egun bizitzen da uda partean. Horietatik 20 erlauntza barnean egiten ditu eta beste 20ak kanpoko lane-



tan. Kanpoko lan istripuan galtzen du azkenik bizia; txori edo armiarna batek janda; galduta; hankak gehiegi kargatu ondoren hotzak erasotu eta bidean gelditzen da beste batzuetan; etabar. Bizitan zehar bete behar dituen lanmotak ugari bezain desberdinak dira. Besteak beste, argizaria, eztiak, propoleoa, polenizazioa etab. egiten ditu.

Hona hemen erleak eztiak egin ahal izateko burutzen dituen hainbat lan:

- Erle batek kilo bat ezti egingeko 40.000 km egiten behar ditu, alegia, munduari jira bat.

- Larrean dabilen erle batek 1000-1500 lore bisitatu behar ditu bere paparoa betetzeko, 75mg nektar biltzeko, alegia. Nektarrak ezti bihurtzeko prozesuan %30ean galtzen du bere pisua.

- Egunean erle larrelari bakoitzak 10-12 bidaia egiten ditu nektar bila, beti ere, eguraldi ona denean: tenperatura 10 gradutik gora, euririk ez, eta haizea 30km orduko abiadura baino txikiagokoa.


- Erlauntza bateko erle guztien artean egunean 5.000.000 lore bisita ditzakete.

- Kilo bat argizari sortzeko erleak 10kg ezti jan behar du.

Lan ugari, beraz, ezti piskat egingeko. Bitxikeria moduan, erlezain batek urtean 20kg ezti etxera eramanez ahal izateko erleek 240 kilo ezti (660 kilo nektar) sartu behar dute aberaskan. Gainerantzekoak bereiek gastatzen dute: larbei jaten ematen, nektarra loditzen, bentilatzen, argizaria egiten eta helduek jaten.

### Eztiak ontziratze prozesua

Esan bezala, beraz, loreen nektarrarekin egiten dute erle-





ek ezta. Nektarrari ura kendu eta sakarosa hidrolizatuz ateratzen da; ura, glukosa, fruktosa, sakarosa eta polen hondarrak dira eztiaren osagai nagusiak. Aberasketan dagoen nektarra kontzentratuz doa eta hezetasun puntu batetara iristean, erleek ezta *operkuloa* izeneko argizari tapa batzuekin estaltzen dute, kanpoko kutsaduretatik babesteko.

Horrela, ezta menditik aberasketan ekartzen da horretarako prestatutako dagoen gela girotueta. Ezta gela honetan 35 gradutako tenperatura batean mantentzen da egun batzuetan. Hemendik, extrazio gelarako bidea hartzen du. Hemen ezta tapatzen duen argizaria, operkulua deitzen den hori, laban batez kendu ondoren ekstraktore izeneko makina batean sartzen da zentrifugatu baten bitartez ezta atera ahal izateko. Hemendik beste ontzi batzuetara pasa eta dekantazioa egiten da. Hau da, eztiak dituen zikinkeriak; gelditu diren argizariaren kondarrak esaterako, iragazki baten bitartez kentzen dira. Arinagoak diren partikula txikiak axalean flotatzen gertatzen dira.

**Erlauntza bateko erle guztien artean egunean 5.000.000 lore bisita ditzazkete**

Hau egin ostean, hamabi bat egunetan zehar ontzi hauetan uzten da ezta garbitzeko. Behin garbi-garbi dagoenean ontziratzeko ordua iritsiko zaio. Beheko kaniletik poteak betetzen dira, dagoen zikinker hori gainean geldituz. Poteak bete eta etiketak jartzen dira ondoko gela batean.

Nektarra zein landare motatik hartua den, ezti kolore eta

ahogozo desberdinak bereizten dira. Europako ezta hori kolorekoa izaten da orokorrean, baina zurixkak, berdexkak edo hori ilunak ere badaude. Elikagai gisa eta sendagintzan erabiltzen da batez ere.

**Julian Bengoetxeak** adierazi digunez, " *Ezta urtean behin ateratzen da, abuztu aldera hasi eta iraila bukaerarte. Gure zaharrek lehen San Miguel aldera ere ateratzen zuten.* "

Eguraldiaren arabera, ezti kopuru gehiago edo gutxiago lor daiteke. Julianen esanetan, aurreko urtea ez zen gaizki

joan. 5000 kilo ezti atera baitzituzten.

Eta bertsoarekin jarraituz, honela dio beste batek:

*" Egiten duten ezti gozoa gustatzen zaigu danori; zenbat loretxo zurgatzen duten iñork ez dakigu ori. Gaitzarentzako botika dala iruditzen zait neri: besteak-beste gozatutzen du makiñatxo bat eztarri, gaixo dagona sendatzen du ta kalterikan ez iñori."*

**Agurtzane Solaberrieta**

## **ERLE EGUNA 2000**

### **OSTIRALA, 28 (PILOTALEKUAN)**

- . Gaueko 22:00etan Bideo-ikuskizuna
- . Ondoren, Zumarte Abesbatza (Animali bat naiz)

### **LARUNBATA, 29 (PILOTALEKUAN)**

#### **11:00tan ERLE AZOKA**

- . Euskal Herriko eztigintza
- . Argizarigintza, ukenduak, kosmetikoa...
- . Ezti-gozogintza
- . Ezti-mermeladak, gozokiak...

#### **13:00ean, GIPUZKOAKO EZTI LEHIAKETA NAGUSIA**

- . Ezti onenaren enkantea (subasta)
- . Ondoren, bertso-saloa; J.M. Irazu eta J. Sarasua

#### **14:00etan GOROSTITXO EZTIOLAREN INAUGURAZIOA**

#### **15:00etan, BAZKARIA AGINAGA SAGARDOTEGIAN**

- . Bazkari-txartelak salgai
- . Bordatxo, Benta, Txiriboga eta Aitzagan

□ Gipuzkoako ezti lehiaketa nagusian pertsonaia famatuak egongo dira epaimahaian. Besteak beste Juan Mari Arzak, David de Jorge, Karlos Argiñano, Andoni Luis Aduriz, Pedro Subijana, Bixente Arrieta, Martin Berasategi eta Luis Mari Intza.

Horrez gain, egun berean, Martin Berasategi sukaldaria Erle Lagunen lehendakari izendatuko dute



## Usurbilen ere aberri eguna ospatuko da apirilaren 23an

**A**pirilaren 23an aberri eguna ospatuko da Euskal Herri osoan.

Usurbilen ere, iaz bezala, eguerdi bitartean ekitaldi ugari izango dira. Aurtengoan udaleko lau alderdi politikoen oniritziarekin antolatu dute egun hau. Ekitaldi ofiziala 12.15etan hasiko da Joxe Martin Sagardia enparantzan.

Udalbiltzak herrietan Aberri Egun bateratua ospatzeko deia egin zuen pasa den apirilaren 1ean. Euskal Herriak gerora begira dituen erronkei konpromisoz aurre egiteko, egun hori "alai eta indartsu" ospa zezaten eskatu zien euskal herritarrei.

Dei honi jarraituz, udaleko alderdi bakoitzeko ordezkariak batzorde bat eratu zen. Eako **Luis Mari Ormaetxea**, EAJ-PNVko **Julian Beraetxe**, PSE-ko **Amaia Goyaran** eta EHko **Agustin Lizaso** eta **Karmele Muxikak** prestatu zuten Aberri Eguneko egitarau bateratua eta guztiek eman zuten beren oniritzia.

Amaia Goyaran PSEko ordezkariak Aberri Eguneko ekitaldiari balezkoa emateak eman du zeresanik. Hurrengo egunetan Gipuzkoako PSE-ek herriko zinegotziak hartutako erabakiarekin bat ez zuela egiten azaldu zuen.

Goizeko 8.00etan frontoi atzetik irteera Bordatxo eta Andatza mendietara trikitilarien laguntzarekin

Goizeko 9.00etan Andatza eta Bordatxon ikurrinaren igoera. Segidan sei suziri botako dira bakoitzetik, baita kaskoan ere, ikurrinak igo direla adierazteko.

Goizeko 9.00etan esna deia trikitilari, txistulari eta albokariekin.

Goizeko 10.30etan hamaiketako trikitilari, txistulari eta albokarienezako.

Eguerdiko 12.15etan Ekitaldi ofiziala

- Hasiera elizako kanpaiekin

- Ondoren txalaparta saioa

- Dantza taldeko kideek ikurrinari omenaldia egingo diote

- Jarraian, ikurrinaren igoera udaletxeko balkoian

- Adierazpenaren irakurtzea

- Amaieran "Agur jaunak" eta "Eusko Gudariak" abestiak kantatuko dira abesbatzaren laguntzarekin

Ondoren herritar guztientzako hamaiketako udaletxean

Batzorde honek, apirilaren 23an balkoietan ikurrina eta Euskal Presoak Euskal Herrira banderak jartzeko gonbidapena egin die herritar guztiei eta horretarako bandera hauek etxe guztietara banatuko dituzte.

Aurten ere, iaz bezala, udaletxearen aurrean egingo da Udalbiltzak deitutako ekitaldia. Amaia Goyaran eta Julian Beraetxek igoko dute udaleko ikurrina eta ondoren udalbiltzaren adierazpen bat irakurriko da



Igandetan ganba-ziri mundialak!

# GALARRAGA GARRAIOAK

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46





**M**usika izan zen protagonista pasa den apirilaren 7 eta 8an Usurbilen. Ostiralean, Zumar-te musika eskolako abesbatzak kontzertua eskaini zuen Salbatore parrokiaren eta *Noaua!* iragarri zuten bezala sorpresak izan ziren bertan. Batzuk prestatuta zituzten, besteak ustekabekoak izan ziren. Izan ere, zenbait abeslari mareatu egin ziren kontzertuan. Bestalde, larunbatean, Elizondoko musika eskolako talde instrumentalak entzuteko aukera izan zen Udarregi ikastolako erdiko aretoan.

### Danborradan parte hartzeko aukera

Danborradako antolatzailleak hasi dira mugitzen. Santa Ixabel bezperan helduen danborradan parte hartzeko izen emateko aukera irekiko dute laister. Maiatzaren 2tik 6a bitartean Etxebeste kaleko egunkari kioskoan eman ahal izango da izena. Baldintzak ere jarri dituzte: Usurbilgoa izatea, 16 urtetik gora izatea eta gutxienez entsaioen %50era agertzea. Pertsona kopurua mugatua izango da eta aldi berean gutxiengo bat osatzen

ez bada ez litzateke danborradarik izango. Lehenengo entsaioa maiatzaren 19an izango da 20.30etan Agerialden. Santa Ixabel egunean haurren danborradan parte hartzeko berriz, aurrez aipatutako denbora epe eta leku berean eman dezakete izena. Hala ere baldintzak ez dira guztiz berdinak izango. 3 urtetik 15 urte bitarteko usurbildarrak izan beharko dute eta entsaioetan ezingo da 3 aldiz baino gehiago huts egin. Lehen entsaioa maiatzaren 13an izango da 16.00etan Agerialden.



**F**rankismoaren zentsura aparatuek euskal literatura izandako esku-hartzea ikertu du **Juan Mari Torrealdaik** "Artaziak. Euskal liburuak eta Franco-ren zentsura (1936-1983)" liburuan. Hamasei urte eman ditu horretan, eta Alcalá de Henaresko (Madril) Administrazio Zibilaren Artxibo nagusia izan du iturri nagusia. 1936an abiatzen da ikertutako epea, eta 1983an amaitzen da, Franco hil eta gero "zentsura aparatuek segitzen baitu lanean" Juan Mariaren esanetan.



**E**usko jaurlaritzak monumentutzat izendatuko du laister herriko kaxko historikoa. Gipuzkoako beste 12 herri kaxko monumentutzat hartu ditu dagoeneko, baina orain, Usurbil eta beste bost herrietako kaxkoak izendatzeko erabakia hartu dute. Izendapen hauekin eraikuntza historikoen deuseztapen arriskua ekidin nahi dute. Herri bakoitzak espediente bat izango du, eta bertan argi geldituko da zein eraikuntza geldituko diren babestuta.

**JUANTXO**  
burdindegia  
kale nagusia 10 Usurbil  
37 00 08



## Urtinea Elkarte

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

## KALEZARRA KARROZERIA



Txapa konpontzea eta pin  
Bankada unib

Ugaldea industrialdea, 36  
Tlf.: 37 36 09



# Eskura ezazu "Zubieta, mila urteko herria" liburua

Bazkideek

500  
pezeta!

Noaia! Kultur Elkartearen egoitzan

Gainontzekoek

975  
pezeta!

Laurok eta Lizardi liburudendetan



Honelako kontu xelege ugari  
aurkituko dituzu

Joxe Ramon Zubimendiren

liburuan

(...) Usurbilgo eliza barruan apaizei  
etxeferoak bota zizkieteneko ere  
gogoangarria da:

1680. urtean edo, Iruñeko gotzaiak  
kontu zorrotzak eskatu zizkion Usurbilgo  
erretoreari *porque la Noche del Naci-  
miento de Nuestro Señor, al tiempo  
que se cantan los maitines y se cele-  
bra la misa, algunos seglares entran en  
la iglesia a perturbar y tirar cohetes a  
los sacerdotes del coro- erdi lotan zeu-  
denak esnatzeko ote? - y el día de San  
Juan Bautista, entran en la iglesia con  
hábito indecente, disfrazados y arma-  
dos.*

(...) Zubieta ere ezaguna da apaizari  
etxeferoak botatzeko kontu hori; horixe  
egin baitzuten bertako apaiz Frantzis-  
ko Aranbururi, 1960. urte aldera, eliza-  
ko dorretik plaza zaintzen egoten zela-  
ke freska-muffak dantzan zebiltzane-  
an. Debekatuta zeukan balseoa ibil-  
tzea eta, dantza lotunik egin ez zezan  
inork, zelatan jarrita egoten omen zen  
kanpandorrea... harik eta Santiotako  
etxeferoak berari bota zizkieten arte.  
Orduz geroztikoa da Zubieta plaza,  
argi denean, dantza loturako liberta-  
tea. (...)

Olatzuar hori izan zen Zubieta azke-  
pengo apaiza. Gizon bitxia, eta  
hemendik kanpora ere oso ezaguna:  
"Zubieta apaiza" deitzen zioten  
denek.

Bitxia da, baina beste ikuspegi batetik,  
behinola Zubieta festetara etorri zen  
apaiz baten jokaera: *"En el presente  
año (1731) acudió a las fiestas de la  
Comunidad de Zubieta, y quitándose  
el manto, se colocó una capa y gorro  
colocados, y empezó a forear, siendo  
corneado por el foro en la cara".*

*Zer gertatu zitzaion  
jakin nahi duzula?*



# Sendabelarrei buruzko ikastaroa antolatu dute guraso eskolak eta udalak

**I**az arrakasta izan zuen ikastaroa berriz errepikatu-ko dute aurten. Sendabelarrak gaitzat hartuta ikastaro bana eman zuten herriko hiru jubilatuko elkartetan, eta jendearen erantzun ona ikusita aurten herritar guztiei aukera ematea egoki ikusi dute guraso eskolak eta udalak. Maiatzaren 3tik 29ra bitartean izango da ikastaroa.

Sendabelarrak gaixotasunak sendatzeko erabiltzea ez da gaur goizeko kontua. Gure aiton-amonek nahiz hauen arbasoek ongi ezagutzen zituzten, eta edozein ezbeharrei aurre egiteko sendabelarretara jotzen zuten. Eta oraindik ere medikamentuen ordeztasunak nahiago dituztenak ere badira gure inguruan.

Hala ere, sendabelarren inguruko ezagutza lehen baino txikiagoa da gaur egungo gizartean.

**Bi orduko zortzi saio egingo dira astelehen eta asteazkenetan. Maiatzaren 3an hasi eta maiatzaren 29an amaituko da**

Pixkanaka-pixkanaka jendea belar hauen garrantziaz jabetzen ari da. 1998an adibidez, 1997arekin konparatuz gero %38 gehitu zen sendabelarren kontsumoa. Izan ere botika mota honek gero eta harrera hobea du eta medikuek

eta komunikabideek gero eta interes handiagoa dute sendabelarreko.

Usurbilen ere nabaritu da hori. Iaz antolatu zituzten lehen aldiz sendabelarrei buruzko ikastaroak herriko hiru jubilatuko egoitzetan eta erantzuna oso ona izan zen. Arrate zahar egoitzakoak behintzat oso gustora zeuden ikastaro honekin, eta aurten errepikatzen asmoa dutela ere jakin dugu.

**20-22 kideko bi talde egin nahi dira**

Aurten, ordea, Guraso Eskola eta udalak herritar guztiei eskaini nahi die ikastaro hau. Maiatzaren 3tik 29ra bi orduko zortzi saio izango dira eta 20-22 kideko bi talde egiteko aukera dago. Saioak astelehen eta asteazkenetan izango dira Udaregi zaharrean 15.30etatik 17.30etara eta 17.30etatik 19.30etara.

Ikastaro honetan gure inguruko sendabelarrak eta beren ezaugarriak ezagutuko dira eta bide batez, zenbait gaixotasunei aurre egiteko ukenak egiten ikasiko da. Interesaturik bazaudete 943 37 19 51 telefonora dei dezakezu goizeko 11.00etatik 13.30etara eta Idoia Aizpuruaz galdetu. Izen emateko epea apirilaren 28an bukatuko da.

Josu Aranberri



**Andatza**  
S.L  
Carrocerías

Industrialdea  
Errota Berri kalea  
Tlf: 36 36 77

## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021

**SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA**  
**IOSU**  
Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk  
Usurbil - Gipuzkoa  
37 19 54

**INDUSTRI ETA  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA**




## Guraso Eskolak bete-betean asmatu du helduentzako gimnasia ikastaroarekin

**M**artxoan geroztik martxan da Guraso Eskolak antolatutako helduentzako mantenimendu-gimnasia ikastaroa. Astelehen, asteazken eta ostiraletan bilzen dira Ageri-Aldeko areto txikian, goizeko 9ak eta 10ak bitartean izerdi pixka bat ateratzeko asmotan.

Hasieran 9 bat emakumek izena eman zuen arren, gero jende gehiago animatu zen eta orain 19 dira taldean. Antolatzailleek esan digutenez, "hasieran jende askok atzera egin zuen ikastolako gurasoei bakarrik zuzendua zelakoan, baina hala ez zela jakinda, segituan animatu ziren".

35 urtetik gorakoak dira taldeko gehienak eta denak emakumeak dira. Normalean



gizonezkoak ez omen dute Guraso Eskolak antolaturiko ekintzetan parte hartzen, are gutxiago gimnasia kontuak direnean.

Guraso Eskola benetan gus-tora dago ikastaro honek izan duen erantzunarekin eta ,

hasiera batean ekaina bitartean egiteko asmoa zuten arren, jendearen eskaria ikusita urrian ere ikastaroa jarraitzekotan daude; "Jendea oso gus-tora dabil ikastaroan, monitorea ere oso atse-

gina da eta ondo azaltzen du momentuero egin behar dena". Ikastaroan parte hartzen dutenak, goizez zein arratsaldez egitea eskatzen omen dute eta aukera hau aztertzen ari da Guraso Eskola hurrengo ikasturteari begira. Modu honetara, talde bat baino gehiago osatzeko aukera izango da, Ageri-Aldeko aretoa oso handia ez denez, taldeak ere mugatua izan behar baitu.

Ez da ez plan txarra! gorputza zaintzarekin batera beste jende batekin egoteko parada ematen baitu. Badakizue, gogoa izanez gero hitz egin Guraso Eskolako kideren batekin eta ea hurrengo urtean talde gehiago sortzen diren.

**Amagoia Mujika**



**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitezarra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa




Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



## Ander, gure aldizkariko maketatzailer berria

Gure aldizkaria zuenganaino ahalik eta txukunen iristea da gure helburua. Horretarako, gure aldizkaria "orrazteko", etorri da Ander Perez donostiarra gurera. CEINPRO ikastetxeko ikasle hau duela aste pare bat hasi zen Noaua!n maketatze lanetan eta ekaina bitartean arituko da praktketan gure aldizkarian. Ongi etorri, Ander!



### III. Noaua! Ikerketarako dirulaguntzen banaketa

Dagoeneko zabalik da Noaua! Kultur Elkarteak urtero zabaldutako ohi duen Ikerketarako dirulaguntzak banatzeko deialdia.

**Ikerlanaren baldintza :** Usurbilgo herriari buruzkoa izatea eta euskaraz burutua izatea.

**Zientzi alorra:** Edozein, beti ere Usurbilgo herriari buruzkoa bada.

**Eskaerak jasotzeko azken eguna:** 2000ko maiatzaren 12

**Proiektu hauek laguntzeko bideratuko den diru kopurua:** 250.000pzt

**Eskaerak honako helbidera bidali:**  
Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20170 USURBIL, GIPUZKOA

**Informazio gehiago nahi baduzu, deitu gure egoitzara.**  
Telf.: 943-360321

**Posta elektronikoa:**  
noaua.k.e@euskalnet.net



## Etxez etxe Noaua!ko bazkideak eginez

Oraindik ez dakizuela nor den? Baduzue, ba, ikasteko garaia. Aintzane Aizpurua gure etxez etxeko bazkideak kanpainarekin dabil duela hilabete inguru. Lasai, zuenera ere iritsiko da eta! Beraz, bada-kizue, ZUEN ETXEKO ATEA IREKI AINTZANERI ETA NOAUA!ri.

**Egin zaituz bazkide!**





Axier Otegi Iribar

- 27 urte
- banatzailea
- kirolaria
- naturazalea

## Arbasoen testigantza

Baditugu gure artean hainbat eta hainbat ikur ezagunak egiten zaizkigunak. Adibidez, lauburua, eguzkia, ... Gure arbasoen ikurrak ditugu. Bertan beraien sinismenak, bizitzari buruzko zentzua, eta abar transmititzen zituzten.

Gaur egun gure artean bizirik diraute. Baina bere esanahia aldatuz joan da. Lauburuaren kasuan zentratuz gero, esanahi ezberdin asko aurki ditzakegu. Honako hauek direnak:

- Berriena eta denok bizi izan duguna abertzaletasunaren esanahia da. Gure nortasuna izkutaturik mantentzen zuen ikurra genuen, guztiz galezaririk zegoena.

- Atzera eginez, bizi indarraren sinismena islatzen zuen.

Baina ikur hau munduko beste hainbat lekutan eta garaietan ere aurki dezakegu.

Adibidez:

Europar: Alemanian, Ingalaterran, Irlandan, Euskal Herrian...

Asian: Txinan, Indian, Tibetan,...

Ameriketara: Azteka eta Inken lurraldetan... etabar luze bat.

Baina leku hauetan aurki dezakegun lauburua ez da itxura berekoa, baizik eta hiru-buruak, seiburuak, zazpiburuak, karratuak, borobilak, ... ikus ditzakegu. Berez, gure lauburuaren jatorrizko izena eta izana "svastika" da.

Nahiz eta Hitlerrek bigarren gerrate mundialean bere triskantzak aurrera eramateko ezagutzera eman, ez du hor bere jatorria.

Aurkitu den *svastika*-ren lehenengo arrastua Transilbanian topatu da. Harri landutakoen azken garaian egina.

Geroztik hainbat herri eta kulturek hartu eta erabilitako ikurra bihurtu da. Azken finean,

kultura gehienek eman zioten zentzua hau da; energiaren eta mugimenduaren sorrera. Berarekin bizitzaren zentzu baikorra eta konstruktiboa izanik.

Beraz, gure lauburuaren jatorria zein den jakin arren, gaur egun Euskal Herrian abertzaletasunaren zeinu izaten jarraituko du, eta ez besterik, eman nahi ez badiogu behintzat.

---

**Gure laburuaren jatorria zein den jakin arren, gaur egun Euskal Herrian abertzaletasunaren zeinu izaten jarraituko du**

---

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**Ostape  
Aranguren**

GASA  
eta  
BEROKUNTZA

Tel: 943 36 43 64 - 610015389

**N • U**

**Ileapaindegia**

MISTOA

Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51





## Ikimilikiliklik

### Gosearen ondorio tortura bilakatzen denean...

Greban ala greba gabeaen: Gosea gose beti.

Mugagabeaen ala motu mugatuan:

Gogoak dira gogor, Gogor beti, gogoz.

Gogoak gurariari: zatoz eta goaz

Gosea gogoz denean, guraria goseti da.

Eri-hotzez erokeria beroa, gogoa urez ito, eta bizi-guraria.

Motibazionea ulertu ere, ulertu daiteke.

Arrazoi ulertzeko, bilatu behar: edukitzea.

Euskara-ajeaen: Burua jan. Jan eta ajea, asebaka gosea. Bat bitan, bietan jarraituz Euskara Herri-asean.

Ordu-mortutan, buru jan ta jan Tripen tripajanez: burukominetan

Zeinek ulerterazi motibazionea nork arrazoi, gogoz kontra gosez hiltzeko jaio direnei?

Zeinek ulerterazi ur mineral iturri

malkoen irrista dutenei?

Zeinek, munduko lau izkinetako elkartasunik gabeko, protestarik gabeko, hilotz gosetuei?

Zeinek, haurtxo, haur, nerabe, gazte, heldu, agure, guzti horiei?

Nola ulerterazi, guzti horietaz ahaztuak dauden guztiei?

Gose-mintzoak zer asetuko, gabon gosez bizi direnei?

Gose-greba izenburu, gastronomi-gida gehigarri, gure kazetan, izpilu gurean, elkar, lagun direnean?

Gosez, Hotzetan, beldur, Pentsakor, nor bere bila, itxaropenez, ametsez maiteminez...

Norbera bere borro,

biktima berea bakoitza.

Tentazioak gose, gogoa tentatuz.

Infernura bolondres eguzkiaren bila.

Zer edo zer, zirt edo zart, duda, muda, gose-greba, oro-guztia.

Motu-mugatuko greban, mugagabeko greba gabeaen, gogoz gose direnak gurari-ase ditezela.

Kaiolako muxar ta sasipeko sator, bidean eroritako ta bidean zatoztenok,

Euskal Herria gogoz bizi, on eginez gogor ekin, herri-ametsak gosetu eta eusko-gurariak asetzeko.

Osasuna eta libertatea.

Aberria eta bizi! Lur-sagar arraultz-opila, patata tortilla!

On egin gogoz guraria gosetzeko. Gurariaren gosea, asetzeko

Patxi Segurola

## Lehiaketa



### Nola izena du baserri honek?

Asmatzaileen artean ARGIAk eskainitako bi sorta aukeran:

1- GURE MENDEA mahai jokoaren lote oso bat ( mahai jokoa , liburua eta CD-Roma)

2- Liburu sorta bat: Ihesi, Txorakikeriak I eta Txorakikeriak II liburuekin.

Azken alean Santuenea alderuntz egin genuen hamabosteroko buelta. Santuenea pasa eta trenbidea zeharkatu baino lehen dagoen baserriaren izena eskatu genizuen. Erantzun duzen guztiok asmatu duzue oraingoan. Sañarrienea zen guk eskatzen genuen izena eta **Asintxio Pagolak** izango du **Elhuyarrek** eskainitako lau sortetatik bat hartzeko aukera.



# A genda

## APIRILAK 28 ostirala

- Erle eguneko egitarauaren barruan gaueko 22:00etan **Bideo-ikuskizuna**. Ondoren, **Zumarte Abesbatza** (Animali bat naiz)

## APIRILAK 29 larunbata

- 11.00etan **erle azoka herriko pelotalekuan**. Euskal Herriko eztigintza

Argizarigintza, ukenduak, kosmetikoa...

Ezti-gozogintza

Ezti-mermeladak, karameluak...

**13:00ean, Gipuzkoako ezti lehiaketa nagusia**. Ondoren **ezti onenaren enkantea** (subasta)

Segidan, bertso-saioa; J.M. Irazu eta J. Sarasua

**14:00etan Gorostitxo eztiola-ren inaugurazioa**.

**15:00etan, bazkaria Aginaga sagardotegian**.

Bazkari-txartelak salgai Bordatxo, Benta, Txiriboga eta Aitzagan

## MAIATZAK 1 astelehena

- **Euskal prozesu demokrati-koaren aldeko konzentrazioa**. Bordatxo aurreko erro-tondan 20.00etan hasita. tondan 20.00etan hasita.

## OHARRAK

- ✓ **Ford Escort Turbo Diesel kotxea** daukat **salgai**. SS-4609 AS. Deitu 943 36 33 90 / 943 43 54 76 telefonotara.
- ✓ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke**. Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✓ **Udarregi ikastola aldean norbaitek giltza batzuk aurkitu baldin baditu** deitu telefono honetara mesedez: 649 322873

- ✓ **Garaje bat alokatzen da Zubiaurrenean**. Deitu telefono honetara: 943 36 58 63

- ✓ **Kale nagusian 30 m<sup>2</sup> ko garaje itxia salgai**. Prezioa: 4 milioi. Telf.: 943 37 23 68

## LANPOSTUAK

- ✎ Usurbilgo udalean **3 peoi eta elektrikari laguntzaile bat** behar dira lau hilabeterako. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 3an amaitzen da.
- ✎ Usurbilgo udalak behin behineko kontratua egingo zaion **kale garbitzaile bat behar du**. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 5ean amaitzen da.
- ✎ Usurbilgo udalak udal eraikinen garbitzaile poltsa osatu nahi du. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 5ean amaitzen da.

### SANTIXABELETAKO HELDUEN DANBORRADA

**IZEN EMATEKO EPEA:** maiatzaren 2a eta 6a bitartean

**NON:** egunkari kioskoan

**LEHENENGO ENTSAIOA:** maiatzaren 19an arratsaldeko 20.30etan Agerialden

**BALDINTZAK:** \* Usurbilgoa izatea  
\* 16 urtetik gora izatea  
\* Gutxienez entsaioen %50era agertzea

### SANTIXABELETAKO HAURREN DANBORRADA

**IZEN EMATEKO EPEA:** maiatzaren 2a eta 6a bitartean

**NON:** egunkari kioskoan


**LEHENENGO ENTSAIOA:** maiatzaren 13an arratsaldeko 16.00etan Agerialden

**BALDINTZAK:** \* Usurbilgoa izatea  
\* 3 urtetik 15 urte bitartekoa izatea  
\* Entsaiotara 3 aldiz baino gutxiago huts egitea

KONPONKETAK  
**ALDAMU**

Zapatak, Kanpinak, Kremailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

**Giltzak kopiatzen ditugu!**



**TXIRIBOGA**  
**TABERNA**

pintxoak, bokatak eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

**SAIOA**  
**ILEAPAINDEGIA**

DEPILAZIO  
ZERBITZUA

Kalezar

☎ 37 29 52





# I.E.S. LASARTE- USURBIL B.H.I.

## LASARTE ETA USURBILGO LURRALDEAN HEZIKETA PUBLIKOA, KALITATEZKOA ETA AURRERAKOIA

### L.O.G.S.E. BATXILERGOAK (A eta D ereduak)

- . Humanitateak eta Gizarte Zientziak
- . Natur eta Osasun Zientziak
- . Teknologia Batxilerra
  - . zikloetarako
  - . unibertsitaterako

### Horniketa berri eta gaurkotua

- . Teknologia gelak
- . Natur zientzietako laborategiak
- . Fisika eta Kimikako laborategiak
- . Informatika gelak
- . Argazki laborategia
- . Gimnasioa
- . Eta abar.

Maiatzaren bigarren  
astean bilera  
izango da institutuan  
Udarregiko ikasle  
eta gurasoentzat.  
Ondoren,  
horniketa berria  
eta gaurkotua ikusi  
ahal izango dute.

### ZERBITZUAK

- . Autobus zerbitzua Zarautz eta Donostiatik
- . LANGAI
- . Orientabide zerbitzua
- . Heziketa ez arautua
- . Irteera kulturalak
- . Praktikak Europako Elkarteko enpresetan

### HEZIKETA ZIKLOAK

#### Erdi mailakoak:

- . Administrazio kudeaketa
- . Merkataritza

#### Goi mailakoak



- . Administrazio eta Finantzak
- . Sistema informatikoak

**AURREMATRIKULA: Maiatzak 2tik 15era, biak barne**

Telf.: 943 37 22 77 (batxilergoa)  
943 37 28 52 (batxilergoa)  
943 37 06 11 (zikloak)



## TXIMINIA ALTZARIAK



## ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Precio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta  
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66





Bizkorrek ez zuen gutxiago merezi

Zorionak Euskal Herria

h a m a r      u r t e